


noaia

**Udajolasen eta Ingeles
Udalekuetan izena
emateko azken egunak**

**Santixabeletako egitaraua
diseinatzeko deialdia
ireki da**

**Hizkuntzaren transmisioa:
zailtasunak etxeko erabilerak
gora egin dezan**



Larunbat honetan, II. Dantza Eguna




OGI BERRI
ARTISAU OKINAK

**ETA ORAIN...
IKUSI FUTBOL
PARTIDUAK
GUREKIN!**



egunero 06:00tik 21:00ra (asteburutan ere)
PUNTAPAX KALEA 16 (ARTZABAL)



**FUNERARIA
GONZALEZ**
EHORZTETXEA

munalurra 8, USURBIL

**·EDOZEIN ASEGURU IZANDA
(OCASO, SANTALUCIA...)
HERIOTZA GERTATZEN BADA,
DEITU ZUZENEAN GURE BULEGORA 24H,
(edo aseguruari gure zerbitzuak eskatu).**

**ASEGURUAREKIN IZAPIDE GUZTIETAZ
ARDURATZEN GARA ZUZENEAN,**

(MOMENTU LATZ HAUETAN ASEGURUAREN POLIZA ZENBAKIA
EDO ERREZIBOA EDO HORRELAKORIK EZ DUGU BEHAR,
ASEGURUAREKIN ZUZENEAN IZAPIDEAK EGITEN DITUGU)

943 36 21 63 (24H)

·BEILATOKI GUZTIAK: USURBIL, ERREKALDE... ·ERRAUSKETAK
·Asegururik EZ duten familientzat Usurbilgo
beilatokia DOAN (gure eskutik)

info@funerariagonzalez.es www.funerariagonzalez.es

PSU
serigrafia

serigiosu@serigrafiaiosu.com

- kamiseta inprimategia
- pegatinak
- iragarki nahiz industri serigrafia
- laneko arropak
- enpresa opariak
- boligrafoak
- txiskeroak
- laser markaketak...

www.serigrafiaiosu.com

Ugaldea polig. 36 tel: 943 371954 USURBIL



**antenas
Telemar**

1969. urtetik gipuzkoarrei zerbitzua ematen.
Telekomunikabideetan goi mailako teknikariak.



elkano kalea 13 HERNANI

Tlfnoa. 943 55 33 99
info@antenas telemar.com



Albisteak iruditan

Michelingo lanaldia malgutzeko sistema, Auzitegi Nazionalera

Duela urtebete, Michelingo CCOO eta UGT sindikatuek adostu zuten lanaldia malgutzeko sistema berriaren aurkako salaketa aurkeztu du LAB sindikatuak, Espainiako Auzitegi Nazionalan. Madrilera jotzeko arrazoia azaldu dute. "Akordioaren izaera estatala dela eta salaketa Madrilgo Audentzia Nazionalan egin behar izan dugu. Salaketa juridikoki sendoa dela ulertzen dugu eta beraz gure eskaeraren legalitatea onartua izatea espero dugu", diote LAB-etik.

Zentruarteko Komiteak sinatutako akordioak aipatu moduan, Michelinek estatu espainiarrean dituen lantegi guztiei eragiten die. Baita hemengo Michelineko 550 langileei ere. Sindikatu aberzalearen esanetan, auzitegietara eraman duen akordioak, "Sistema Plusean %40rainoko soldata jaitziera ekarri du, urteko lanaldia luzeago izanik". Honez gain, 79 lan egutegi dituzte aukeran, "haue-tariko bakoitzak bere urteko lanaldi eta Sistema Plus ezberdina dituelarik". Akordio berak, urtean zehar 20 egun gehiagoz lan egin edo 30 lan egu-



CCOOk eta UGTk Michelinekin adostu zuten akordioak "pertsona bajaran dagoen momentuak ez ditu errespetatzen", LABek salatu duenez.

nez enpresa ixtea ahalbidetzen du. Eta legea urratzen du LAB-en esanetan, "izan ere, pertsona bajaran dagoen momentuak ez ditu errespetatzen. Lan-

gileek lanaldi negatiboa pilotzen dute, hau da, baja goeran egon arren Michelinekiko lan egun moduan zorra pilotzen da".

Laburrean

Lanbide Heziketan euskaraz ikasteko gida

Buruntzaldeko udalek eskualdean eta Gipuzkoan Lanbide Heziketa euskaraz egiteko dauden aukeren inguruko informazioa eskuorri batean argitaratu eta banatzekoak dira, oraintxe ziklo aldaketa baten atarian diren gazteen etxeetara. 1996 eta 1998 urteetan jaiotakoei edo beste modu batera esanda, DBH eta Batxilergoko azken ikasturtean diren ikasleei. Eskuorriok Potoxoenean ere jaso daitezke.

Eskoziatz, Aitzagaren hurrengo hitzaldia

"Eskozia. Independentziara bidaia XXI. mendeko European" izeneko hitzaldia antolatu du Aitzaga Elkarrekin, apirilaren 24rako, 19:30etan Sute-giko auditorioan. Nazioarteko politika analista eta idazle Txente Rekondo eta Independentistak sareko kide Txutxi Ariznabarreta gonbidatu dituzte ekitaldira. Izenburu bera duen liburua izango dute hizpide Suteegin eskainiko duten solasaldian.

NOAUA!rik ez hurrengo hamabostaldian

Apirilaren 18an eta 25ean ez da astekaririk izango. Eta hurrengo zenbakia, 571. NOAUA!, ohi baino lehenago kaleratuko dugu; maiatza hasierarako zubia dela eta, apirilaren 30ean. Honenbestez, datorren astekarirako ohar edo zorion agurrik baldin baduzue, apirilaren 25a baino lehen ekarri beharko duzue NOAUA!ra. Emailaz bidali bestela, erredakzioa@noaua.com helbidera. Egoitza itxita egongo da apirilaren 17tik 21era.

noaua

Kultur Elkartea

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil
943 360 321 // elkartea@noaua.com // www.noaua.com
Jendaurreko ordutegia: 10:00-14:00 / 16:00-19:00 astegunetan



Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!

Elkarteko lehendakaria:
Ana Aizpurua.
Aldizkariko koordinatzailea:
Imanol Ubeda.
Idazkaria: Aizpea Aizpurua.
Publizitatea: Bea Alda,
publizitatea@noaua.com.
Diseinu berria: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua,
erredakzioa@noaua.com:
Imanol Ubeda, Aritz Lasarte,
Aizpea Aizpurua.
Banaketa: Olatz Rezola, Arantxa Zulaika.
Laguntzaileak: Lontxo Zubiria,
Maria Angeles Arruti, Ainara

Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria Jesus Urbieto, Maddi Galbete, Ana Urdangarin, Maddi Zaldua, Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Alazne Begiristain, Denis Elortza, Pello Aranburu, Xabier Aranburu, Inma Balda, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi,

Maialen Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas, Unai Agirre, Idoia Torregarai eta Udarregi ikastola.
Tirada: 2.800 ale.
Lege-Gordailua: SS-668-96
ISSN: 1136-6818.
Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



Nerea Zinkunegi

Espazio kontua da

Badira hitz egite hutsean beraiek adinako hiruk beharko luketen tokia behar dutenak. Badira baita, beraiena txiki eta zurea ere errespetatzen ez dutenak, hitz egitean ahatsa sudur puntara botatzen dutenak. Badira espazioan atzera eta aurrera hanka puntetan dabiltzanak, txintik atera gabe, espazioan azeri. Elefantearen pare ibiltzen direnak ere badira, pausoa tinko, nondik dabil-

tzan nabarmen uzten dutenak. Badira baita espazioan dantzan dabiltzanak, hara eta hona, besoak zabalik zerura begira, inguruan denari jaramonik ere egin gabe, mozorrotutako armonia batetan ia alai.

Badira ezkutuan ibiltzen direnak, buru makur, izuak jota, mehatxupean, zehar begiratuaz espazioan zehar dabiltzanak. Beldurgarrienak dira horiek.

Badira baita espazioan ikusi ere

egiten ez direnak, sumatu ere ez, besteen itzalak hain dira handiak.

Egunerokoan, hainbat esparru eta eremutan emakumeok ia espaziorik ez dugula kontu zaharra da, berritzen ez dena; artean, kirolean, politikan, lan munduan, literaturan..... Saiakera ezberdinak egiten ditugu espazioan gure presentzia nabarmenagoa, ugariagoa, izan dadin eta horren aurrean badira gogo txarrez ere begiratzen gaituztenak.

Kalean espazio zabalagoa hartu nahian Batukada Feminista dabil, emakumeak soilik partaide. Helburua sinplea bezain handia da, espazioak okupatuz gozatea, gure espazioa, gure gozamina. Beraz, zure espazioan barrena zoazela beraiekin topo egiten baduzu ez ezazu aipamen desatsegirik, desegokirik, lekuz kanpokorik egin, dantza eginez goza ezazu momentu horretan gurea den espazioan.

Aritz Gorriti | Luken Arkarazo | Idoia Torregarai | Luis Aranalde | Maialen Unanue | Imanol Ubeda | Joxe Piñas | **Nerea Zinkunegi**

Liburutegiko Txokoa

Apirilean irakurtzeko moduko proposamenak

NOAUA! herri aldizkariarekin elkarlana hasi dugu. Txoko hau da esaten ari garenera erakusgarri. 'Liburutegiko txokoa' deituriko atal honi hasiera eman diogu, non hilean behin (momentuz) liburu eta ikusentzunezko ezberdinak aholkatuko ditugun. Bernardo Atxagaren "Nevadako egunak", Ana Malagonen "Lasai, ez da ezer gertatzen" eta John Greenen "Bajo la misma estrella" dira apirilera hautatu ditugun proposamenak.

Gainontzean, sarean jarrai gaitzakezue, helbide hauetan:

Bloga: liburutegiak.blog.euskadi.net/usbirbil/

Twitter: @usbirbil

Facebook: [Usurbilgo Sutegi Udal Liburutegia](https://www.facebook.com/Usurbilgo-Sutegi-Udal-Liburutegia)

www.noaua.com: Komunitatea ataleko gure txokoaren bitartez.

Bernardo Atxagaren "Nevadako egunak"

Idazlea, familia lagun, 2007-2008ko ikasturtean EE.BB.etako Nevadako Reno hirian bizi izan zen. Hortik abiatzen da hasieran kronika itxura duen kontakizuna, bertako egonaldiaren berri ematen baitigu eguneroko edo asteroko bat bailitzan. Baina pixkanaka bere haurtzaroko eta gaztaroko oroitzapenak tartekatuz doaz, eta amaiera aldera, denboran gertuago dituen esperientziak, gurasoen heriotza esaterako, kontatzen digu. Patxadaz irakurtzeko liburu, finean, bidaia kronika bat baino gehiago, barne kronika bat baita.



Ana Malagonen "Lasai, ez da ezer gertatzen"

Egileak proiektu digitalen diseinuan dihardu lanean, blogari aktiboa ere bada (www.samuraitasuna.org, www.lafabricadelascosas.org), eta orain, bere lehen liburua aurkeztera datorkigu. Liburuak 162 mikroipuek (orrialde erdi bat edo gutxiagoko luzera dutenak) osatuta dago, gaurkotaroko handiko istorioak, hiri giroan kokatuak, eta eguneroko bizimoduari ironiazko begirada bat eskaintzen diotenak. Arin eta gustura irakurtzen den liburu.



John Greenen "Bajo la misma estrella"

Protagonistak, bi nerabe, neska mutilak; amankomunean: minbizia. Galtzeko denborarik ez dutenez, bidaia bati ekingo diote; zenbait esperientzia xeble biziko dute, baita intentsitate handiko besteren bat ere. Idazle amerikarrak istorio bizia eta argia dakarkigu: negarra baino gehiago, barrea eragingo diguna; heriotzaz baino gehiago, bizitzaz diharduena. Gazte literatura hain gazte ez direnentzako ere erakargarria izan daitekeenaren froga.



Sutegi Udal Liburutegia

Ika Mika atalerako idatziak gehienez 2.000 karaktere izango ditu. NOAUA!k ez du bere gain hartzen Ika Mika atalean adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik. Ezizena ere onar daiteke, baina idatziaren egile den gizabanakoaren edo elkartearen IFK edo baliokidea egiaztatu eta gero.

Zuzenean beste pertsona bati zuzenduta dagoenean, izen-abizenekin argitaratuko da ika-mikarako idatzia.

Hurrengo alea: apirilak 30. Idatzia ekartzeko azken eguna: apirilak 28 (eguerdiko 11:00ak).

Hausnarketarako gazte topaketak

Datorren oporraldia gogoetarako baliatuko du Usurbilgo Ernaik. Batetik, Altsasun antolatu diren Gazte Burutakzio Topaketekin bat egin dute. Usurbilen ere topaketak antolatu dituzte apirilaren 24 eta 25erako. Guztia, gazte erakundeak urtea bete berri duen honetan.

NOAUA! Urtea bete du Ernaik Usurbilen. Aldaketa urtea izan da hau Usurbilgo gazte mugimenduarentzat, zer moduz egokitu da aldaketetara?

Ernai Usurbil. Gazte Mugimendua bizi bizi dagoela antzematen dugu. Gazte Asanbladan geroz eta gazte gehiagok parte hartzen dute, Akerran nahiz eta Usurbilgo Gaztetxean ekintza andana egiten dira, festei begira ere gazte ezberdinak elkartzen gabiltza eta Ernai ere gure ekarpena egiten dugu gazte problematikari aurre egiteko. Gazte mugimendua poliki poliki trinkotzen ari da, egungo sistemari eraikuntza ikuspegitik aurre egingo dion gazte boterea osatuz.

"Burutakzioa" ekimena antolatu da Altsasun. Zer eskainiko dute topaketok?

Gazte Burutakzio Topaketak apirilaren 17, 18 eta 19an Altsasun ospatuko dira eta berauek, Iparraldeko Aitzina eta Hegoaldeko Ernai gazte antolakundeok elkarlanean prestatu ditugu. Bertan, borroka tresna ezberdinen gaineko jakintza teoriko nahiz praktikoak landuko ditugu, besteak beste, desobediencia, taldeen mikropolitikak, komunikazio gerilla edota sormena bezalako edukiak jorratuko ditugularik. Honez gain, eskaintza kultural zabala eskainiko du gazte burutakzioak, dokumentalak, antzerkiak, hitzaldiak, kontzertuak... Herritik herriarentzat eta gazteok gazteontzat sortutako ekimena izango da bere osotasunean. Beraz, gazte guzterie bertan parte hartzera gonbidatzen diegu, esperientzia ederra izango da eta! Eskualdetik autobusa aterako da. Sarrerak Aitzaga eta Irratin topa ditzakegu.

Topaketa gehiago laster, kasu honetan Usurbilen. Testuinguru berean antolatu dituzue?

Udaberriaren kaleak eta buruak bor-borka jarri nahi ditugu, gazte ezberdinok ditugun burutazioak burutakzio bihurtuz, egunez egun, urratsez urrats. Testuinguru honetan, ezinbestekoa da gazteok elkartu, elkarrekin hausnartu eta gure burutazioak elkartrukatzeko denbora hartzea. Horregatik, apirilaren 24



Apirilaren 24 eta 25erako Topaketak antolatu dituzte Usurbilgo Ernaiko gazteek.

ERNAI USURBIL

"Etxebizitza, elikadura burujabetza alternatibean eraikuntza... gaien inguruan hausnartuko dugu apirilaren 24-25eko gazte topaketetan"

eta 25ean herriko gazte topaketak burutuko ditugu, bertan, etxebizitza, elikadura burujabetza edota alternatibean eraikuntza bezalako gaien inguruan hausnartuko dugularik.

Burujabetzaren aldeko manifestazioa maiatzaren 3an Bilbon. Gazteek zergatik egon behar dute han?

Sistema kapitalista patriarkarrak eta bere sostengatzaileek gazteok prekarietatera eta miseriara kondenatzen gaituzte, enplegua ukatuz, hezkuntza inposatuz, atzerrira migratzera behartuz, emantzipatzea ia ezinezko bilakatu edota zaintza lanak egitera behartuz. Burumakur nahi gaituzte, ez dezagun pentsatu, ez dezagun ezer aldatu, ez dezagun galdetu. Burugabe nahi gaituzte, baina gu, gu burujabe gara, aske, buruaske egiten gaituen jendarte baterantz urrats sendo eta konpartituak emateko. Finean ba al dago onura handiagorik, herri gisa, gazte gisa edota norbanako gisa zeure buruaren jabe, geure erabakien jabe, geure ekinbidearen jabe izatea baino? Maiatzaren 3an Bilbon burutuko dugun manifestazioa inflexio puntua izango da alor honetan. "Larrutu sistema, eraldaketa geure baitan" lempaean, partida abiatu dela iragartzera gatoz, buruz buru goaz lehiara, gu eta sistema. Kantu batek dioten moduan, "Borroka gure baitan hasten da, aska ditzagun geure buruak". Beraz, gazte eta ez hain gazte, goazen denok Bilbora!

Santixabeletako egitaraua diseinatzeko deialdia ireki da

- Jaietako egitarauan oinarritu behar da diseinu lana. Egitaraua Potxoenean edo kultura@usurbil.net helbidean eskura daiteke.
- Lanak originala izan behar du, aurrez aurkeztu eta argitaratu gabea.
- Nahi adina lan aurkez daitezke, banaka edo taldean.
- Neurria librea.
- Lanak euskarri digital (CD edo pendrive batean, pdf formatuan) eta paperean aurkeztu behar dira.
- Aurkezteko epea: maiatzak 15.
- Aurkezteko lekua: udal erregistroan. Edo postaz:
Usurbilgo Udala
Kultura Saila
Joxe Martin Sagardia Plaza z.g.
20170 Usurbil
- Oinarriak: kultura.usurbil.net
- Argibide gehiago: 943 371 999
kultura@usurbil.net

Jai Batzordearen bilera

Maiatzaren 5ean, 18:00etan Potxoenean. Laster gainera, Santixabeletako txupinazorako proposamenak biltzeko deialdia egitekoa da Jai Batzordea.

Txosna Batzordearen bilera

Datorren astelehenean, apirilak 14 astelehena, 18:30ean Potxoenean. Bilerara gerturatzeko deialdi irekia egin dute Txosna Batzordetik.



Maiatzaren 15ean amaituko da lehiaketara aurkezteko epea.

ALDAMU
KONPONKETAK
KALE NAÇUSIA 10- etzekoaldea
943 372 795

www.noaua.com
USURBILGO ATARIA

ZALDIGAIN
ERREMENTARIA

- Burnia, inox, altzairua eta corten altzairuarekin lan egiten dugu.
- Barandilak, balkoiak, eskailera dekoratiboak, solairuarteak...

www.zaldigain.com • info@zaldigain.com
Tfno. 943593303 • Mugikorra: 677463867
Fax: 943300045

Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO

Errenta Aitorpenaren harira lehiaketa antolatu da

Buruntzaldeko udalek antolatu dute, jada martxan den kanpainaren baitan. Parte hartu nahi duzuenok, sartu Facebook-en, Buruntzaldea Euskaraz orrialdean. Galdera bati erantzutea proposatzen dute: "Errenta aitorpena egitea egokitzten zaigun honetan, ba al dakizu zer esan nahi duten sigla hauek? Deszifra itzazu: BEZ, JRZ, IFK, PFEZ, OHZ".

Apirilaren 25a baino lehen, galdera zuzen erantzuten dutenen artean, bi sari zozketatuko dira. Batetik, ekainaren 7an Andoaingo Bastero kultur gunean Benito Lertxundik eskainiko duen emaldirako 2 sarrera. Eta bestetik, Astigarragako Ipintza sagardotegian 2 lagunentzako bazkaria edo afaria.

Kanpaina martxan

Ogasunarekin diru kontuak argitzen hasteko garaia heldu da beste behin. Usurbilgo Udaletik, Buruntzaldetik eta UEMA-tik Errenta Aitorpena geure ama hizkuntzan, euskaraz egitera animatzen dituzte herritarrak.



Buruntzaldeko udalen ekimenez, Benito Lertxundi ikusteko bi sarrera edo sagardotegirako bi otordu zozketatuko dira.

Errenta Aitorpena, egutegia

Apirilak 10-ekainak 06: errenta aitorpen mekanizaturako hitzorduak eskatzea (autolikidazio proposamena onartu nahi ez dutenek, apirilaren 15era arte itxaron beharko dute).

Apirilak 11-ekainak 25: errenta aitorpena aurkeztu eta onartzea (autolikidazio proposamenak onartzeko epea zabalik, apirilaren 7tik).

Informazio gehiago: 902 100 040. Edo web orrian: gipuzkoa.net/ogasuna/errenta/

Udal lanpostuen balorazio errebisioa onartu zen martxoko udalbatza plenoan

Eta horrekin batera, baita hasieraz ere udal lanpostuen zerrenda, martxoaren 25eko osoko ohiko bilkuran. Udal lanpostuen berrikuspenak 17 lanposturi eragin die. Horietatik, Mertxe Aizpurua alkateak saioan berri ematen zuenez, sei lanposturen mailan eragina izan du. Otsaila amaieran eman zitzaizen udal langileei, aldaketon berri. "Adostasun maila altuarekin hartu dira erabakiak, bi kasutan izan ezik. Eta bi kasutan, lanpostuak lehen bezala geratu dira", adierazi zuen alkateak osoko bilkuran.

Adostasun bila

Udal lanpostuak berrikusterakoan, aldatarik egin behar bazen, erabakia adostasunez hartzea onartua zuen, gai hau landu duen udal mahaiak. "Adostasunik ez bazen, lanpostuak bere horretan mantenduko zirela" erabakia zuten aipatu lan taldea osatzen zuten, gobernu taldeko lau kideek, eta Usurbilgo Udalean ordezkari-tza duten sindikatuetako ordezkariak.

Lanpostuen zerrenda ere onartua izan da

Bi urtean behin burutzen duten lanpostuen errebisio lanak iaz abiatu zituen Usurbilgo Udalak. LKS aholkularitza enpresaren laguntzarekin berrikusi dituzte udal lanpostuak. Tartean, langileek alegazioak aurkezteko aukera izan dute. Eta lanpostuen errebisioari loturiko balorazioa azken osoko ohiko bilkuran onartu zen gehiengoz, gobernu taldeko kideen aldeko bozkekin. Gainerako udal taldeak abstentitu ziren.

Udal lanpostuen zerrenda ere hasieraz onartu zuen udalbatzak, gobernu taldearen babesarekin. Aralar, EAJ-PNV eta PSE-EE abstentitu ziren. Hamaikabatek aurka bozkatu zuen.

"Norberaren zaintza somatikoa eta emozionala" ikastaroa Santuenean

Emakumei zuzenduriko doako ahalduzko ikastaro berri hau antolatu du Usurbilgo Udaleko Parekidetasun Sailak. Maiatzaren 9an abiatuko da. Saiok ostiralero izango dira, 17:00-19:00 artean Santueneako Aldapeko lokalean. Mainer Andonegik bideratuko duen ikastarorako ize-na aurrez eman beharko da, maiatzaren 2a baino lehen; 943 377 110 zenbakira deituta edo parekidetasuna@usurbil.net helbidera idatzita.

"Ikastaro honekin zure buruarekin egoteko denbora hartu eta arnasketa-teknikaren bitartez, zure gorputza entzuten, sentitzen eta mimatzen

ikasteko aukera izango duzu!", diote antolatzaileek.

Ondorioak osasunean

Hainbat bizi ohiturek emakumeen osasunean duten eraginaz ohartarazita antolatu dute ikastaro hau. "Etxeaz arduratzea eta etxetik kanpo ere lan egiteak, inguruko zaintzea, prestutasuna edukitzeak eta oro har, jendarteak eskatzen dienari erantzuteko ahaleginek, ondorioak izaten ditu emakumeen osasunean", ohartarazten dute Parekidetasun Sailetik. Zaintzea komeni beraz.

USURBIL AUTOAK
 · TAILERRA · KARROZERIA · KOTXEEN SALMENTA

 **SUSTITUZIO KOTXEA DOAN!!!**

zerbitzu ofiziala
 Zumartegi industrialdea  **943 36 10 79**

LATAILLADE 

 **ITURGINTZA**

Gasa, berogintza, klimatizazioa, instalazioak eta mantenimendua

Aristitxo 8, behea **943 363 348 - 609 888 021**

OLARRONDO JATETXEAN...

EGUERDIRO EGUNEKO MENUA 9€ (kafearekin 10€)

*Eguerdiero mokau goxoa
duzulako merezi,
toki aparta eta atsegina
nahi dizugu eskeini,
lehen platera-jaki-postre
ogia ta edari,
praktikan 9€ soilik
behar duzu ekarri,
txanpon bat gehiagorekin
kafea eta guzti.
Sukaldean pil-pil, arreta irriz,
aldarte sortzen da gozagarri.
Animatu zaitez,
ez gaude hain urruti,
asteartetik ostiralera
Olarrondo Jatetxera etorri!*

OSTIRAL ETA LARUNBAT GAUETAKO MENU BEREZIA

Abakando entsalada
+ aukeratzeko:
arkumea edo txerrikumea
+ edaria, postrea eta kafea
25€ (BEZ barne)

OLARRONDO JATETXEA

5 zenbakia, USURBIL
erreserbak: 943 360 376
626 686 036

info@olarrondojatetxea.com
www.olarrondojatetxea.com



Egutegi biodinamikoa eta ilargiak nekazaritzan duen eraginari buruzko ikastaroa

Alkartasuna kooperatibaren egutegian, biodinamikaren inguruko datuak Xabier Akizuk idazten ditu. Apirilaren 26an larunbata, ikastaroa eskainiko du Potxoenean. Ilargiaren eraginaz hitz egingo du eta, bide batez, egutegi biodinamikoa ondo erabiltzeko azalpen zehatzak eskainiko ditu.

NOAUA! Ikastaro honetan aholku batzuk ere emango dituzue. Zein da helburua?

Xabier Akizu. Landareetan ilargiaren eragina zertan oinarritzen den argitzea. Eragin horiek datu astronomikoetan oinarritzen dira, estadistikoki konprobatuta dauden datuetan. Hori izango da helburuetako bat, azalpen horiek ematea. Eta bestetik, egutegi biodinamikoa erabiltzeko azalpen zehatzak emango ditugu. Beraz, ikastaroa praktikoa ere izango da.

Ilargiaren eraginaz hitz egingo duzu.

Baina horrelako ikastaroetan lehenbizi azpimarratzen dut lurra eta arbola zaintzea dela inportanteena. Bere garaian, eta behar bezala. Eta ilargiaren edo goitik datozkigun eragin horiek nolabait gehigarri bat direla. Nola egite horretan akats bat egiten badugu, noiz egiteak -alegia, gora begira egoteak ez digu asko lagunduko.

Egutegi biodinamikoan, ilargia eta beste planetekiko ko-



“Ilargia gertuen dugun astrorik nagusia da. Eta gertutasun horrek izugarritzko garrantzia dauka”, hala aitortu digu Xabier Akizuk.

XABIER AKIZU

“Datu astronomikoetan oinarritzen da ilargiaren eragina, estadistikoki konprobatuta dauden datuetan”

kapena hartzen da kontuan.

Ilargia gertuen dugun astrorik nagusia da. Nahiz eta txikia izan, gertutasun horrek izugarritzko garrantzia dauka, eragina askoz handiagoa duelako. Eragin batzuk, ilgorarenak eta ilbeherarenak, hau da noiz erein eta noiz aldatu, lurra eta ilargiaren arteko harremanean oinarritzen dira.

Eragile bada ilargia, baina baita bitartekari ere.

Hori da. Jasotzen duen informazioaren arabera, landareak garatzen du fruitua edo lorea

edo hostoa... Eta informazio hori ilargiaren bidez jasotzen du. Baina informazio hori ez datorkio ilargitik, baizik eta urrutiagotik. Urrutiagoko horiek dira zodiakoaren konstelazioak. Urrutitik datorren informazioa da baina ilargiaren bidez edo ilargiak polarizatuta jasotzen duguna. Eta landareak zuzen zuzenean jasotzen duena.

Planeta bakoitzak ere badu bere eragina, eta badira jokoan diren beste elementu batzuk, baina nagusiki horiek dira.

EGUN BAKARREKO IKASTAROA

- Apirilaren 26 larunbata.
- 9:00-14:00 Potxoenean.
- Xabier Akizuren eskutik.
- 5 euro. Alkartasunako bazkideek doan.
- Antolatzailea: Alkartasuna kooperatiba.

“Jakindura astronomikoan oinarritua dago”

NOAUA! Jakindura astronomikoarekin lotzen da hau guztia. Xabier Akizu. Bai, zehazki. Alde batetik, jakindura astronomikoan oinarritzen da, zeren datak oso zehatzak dira guztiontzat. Baina beste alde batetik, greziarren garaitik datozen ezagupenetan ere oinarritzen da. Beraz, badugu aspektu astronomikoa, oraingoa edo, eta badugu lehengo ezagutzaren berreskurapen bat. Hori dena baliatzen dugu eragin horiek denak nondik datozen eta nolakoak diren jakiteko.

Ikastaroa teorikoa izango da, egun bakarrekoa. Nekazaritzan interesa duen orori zuzendua dago, ezta?

Hori da, bai baratze txikia edo hektarea bat dutenentzat. Nekazaritzaz asko dakitenentzat eta oso gutxi dakitenentzat. Ilargi kontuetaz ere, asko dakitenentzat eta ezertxo ere ez dakitenentzat.

Eragin horiek nondik datozen ulertzeko, eta zein egun diren aproposak horretaz baliatzeko. Hori da ikastaroaren asmoa.



Xabier Akizuk eskainiko du apirilaren 26ko ikastaroa.

LOGOPEDIA

Haurrak / Nerabeak / Helduak
TERAPIA MIOFUNZIONALA

- Arnasketa arazoak, disglosia, degluzioa
- Ahotsaren tratamenduak: disfonia funtzionala simple eta konplexua, disfemiak...
- Hizkuntza eta ulermenaren zailtasunak: dislexia, disortografia, diskalkulia, TDA-H, disartriak...

Aurreko hitzordua: 635 701 374

ALKORTA AUTOZERBITZUA

Baserriko haragia

•Frutak •Barazkiak •Etxeko produktuak •Izoztuak

Beheko kalea 4, ATXEGALDE AUZOA 943 36 57 42

II. SAGASTIAK LORETAN OSPAKIZUNA

IKASTARO TEORIKOA "EGUTEGI BIODINAMIKOA ETA ILARGIAK NEKAZARITZAN DUEN ERAGINA"

Apirilak 26 larunbata, 9.00etatik 14.00etara

Noiz erein, landatu, ongarritu eta kimatu? Uzta hobetzeko kosmosaren eragina baliatu. Xabier Akizuren eskutik.



Ikastaroko parte hartzaileek Maria Thun-en "Egutegi biodinamikoak" eskuratu ahal izango dute %20ko deskontuarekin



Oharra: Ikastaroaren kostua 5€. Alkartasunako bazkideek doainik. Izen-ematea: Alkartasuna kooperatiba • Tel: 943 361 114 • e-maila: alkartasuna@usurbil.com

Lehenengo 6
erosleentzako,
garaje bikoitza
banakako
prezioan!

ZURE AMETSETAKO ETXEBIZITZA

188.000 € tik

12 ETXEBIZITZA
INGURUNE PAREGABEAN
Agerreazpiⁿ

- Etxebizitza argitsuak.
- Terraza handiak.
- Lorategidun behe solairuak.
- Primerako kalitateak.
- Diseinuzko materialak.

USURBILEN

VIVIENDAS LANIN S.L.

Lazkano Pasealekua, 1^º Behea
20009 Donostia

E.:contacto@viviendaslanin.com

943 46 88 60

www.viviendaslanin.com



Josu Zubillaga - Ikastetxeko psikologo eta aholkularia

“Koherentzia da balore hezitzailea, baita hizkuntzan ere”

Eskola da haurren sozializazio-rako bigarren gunea; familia, lehenengoa. Umeen nortasunaren oinarria etxean transmititutako baloreek, ohiturek jartzen dute, Josu Zubillaga psikologo eta aholkulariaren ustez.

Hernaniko Langile Ikastolako psikologo eta aholkularia da Josu Zubillaga, 1985 urteaz geroztik. Lehenago ere ibili da beste ikastetxe batzuetan. Esperientzia horretan oinarrituta, familietan izandako aldaketan eta balore transmisioen inguruan hausnartu du.

Asko aldatu al dira familia ereduak?

Eskema tradizionala topiko bat da; ez da erdira iristen! Gaur egun ez da arraroa familia monoparentalak (normalean, ama umekin) edo berregituratutako familiak aurkitzea (guraso desberdinetako haurrak elkarrekin). Edo haurrak, guraso ez diren beste tutoreren batekin, edo bikote homosexualak haurrekin... Hori asko aldatu da. Neurri batean, beste paisaje bat ekarri dute. Hala ere, umeen beharretatik abiatuta, premiak berdinak dira. Aurreneko 3-5 urteetan, premiako zaintza behar dutenean, finkatzen da haurraren nortasunaren oinarria.

Itxuraz, familien egiturak aldatu egin dira, baina egitekoak berdinak dira, premiak lehenagoak dira: haurrek behar dituzte zaintza eta arreta egokia, esparru egituratua eta aurreikusitako daitekeena. Errutina, azken batean: ohiturak beteta, gehiago ikasten dute.

Bizitza erritmoa ere asko aldatu da. Horrek ba al du eraginik hezikuntzan?

Kontua da, ea helduok gai garen gizarte azkar honetan premia horiek betetzeko. Azken urteetan gure gizartean izan diren aldaketak soziologian izan diren bortitzenetakoak dira. Egund, guraso izatea ez da erraza. Oso azkar



Josu Zubillaga psikologo eta aholkularia da.

“Oraingo guraso asko ikastoletako ikasle ohiak dira; badakite euskaraz, baina gaztelaniara jotzeko ohitura dute. Ez gara oso koherenteak”

doan gizartea, krisiak sortutako kezka eta antsietatea... Umeak errutina behar du, eta prekaritate egoerak ez du laguntzen.

Bestalde, frankismoaren eta 68ko maiatzaren ondoren, korrante filosofo asko sortu ziren. Ez dago eredu bakarra; gurasoek eredu desberdinak dituzte, eta horrek ere segurtasun eza sortzen du. Ondorioz, familiek desberdin jokatzeko dute umeen premiekiko eta transmititzen diren baloreekiko. Hala ere, atzean dago-

ena beti da umeak zer behar duen.

Balio berak transmititzen al dira eskolan eta etxean?

Frankismoarekin oso lotuta ikusten dugu autoritarismoa, eta orduko irakaskuntza eta hezikuntza autoritaristari aurre egin zaio. Baina batzuek nahastu egin dute autoritarismoa autoritatearekin. Tarteka, eskolan detektatzen dugu familia batean autoritatearen ulermen eskasa dagoela, eta horrek ez dio umeari laguntzen. Autoritatea itxuraz gauza zentzuzkoa eta sinplea da ume baten heziketan: zer bai eta zer ez; zer den egokia eta zer den desegokia. Hori etxetik ikasten da. Ondoren, eskola eta familia elkarlanean aritzeko gai bagara, eskolak indartu egingo du. Arazo sortzen da norantza berean ez

goazenean. Bizitza soziala gertatzen den toki guztietan arauak daude, eta oinarrikoa da horiek ezartzea. Pertsonok sistematan egiten gara pertsona, psikologia sistemikoaren arabera. Lehenengo sistema familia da. Hor jasotzen dira lehenengo zaintzak, gidaritza, ohiturak, kultura, mugak, oinarriko nortasuna. Eta bigarren sozializazioa eskolan gertatzen da.

Askotan gertatzen al da norantza desberdinean joatea?

Zorionez, ume gehienak ondo daude. Familia gehienetan ia modu inkontzientean hezten dira. Baina tarteka etxe batzuetan uste okerra egoten da: gurasoak haurraren lagun edo kolega izan daitezkeela, eta ez. Etxean umeak behar dutena da zaindu eta gidatuko dituzten helduak. Noski, umeen zaintzak denbora eskatzen du, eta gaur egun gatazka moduan bizi dugu familia eta umei ematen denbora eta guretzat hartzen duguna. Hasieran, denbora asko behar da umeentzat, eta hazten diren heinean, urrutiratu egingo dira; gaitasunak hartu bezala distantzia hartzen dute. Baina gurasoek sentitzen dutenean ez direla iristen, batzuetan, nahiago dute kolega izan eta gatazka ekiditen dute; gatazka, ordea, ezinbestekoa da hezteko. Honek bueltan eskolaren gain ardura asko uzten ditu, eta ezinbestekoa da familiaren eta eskolaren arteko harremana; ezin dira erlajatu.

“Eredu gehienak etxetik datoz”

Euskara bultzatzeko lanean ere erlajatu egin gara?

Motibazioa handia zen diktadurari aurre egiteko eta beste eskola eta gizarte mota bat, hobea, lortzeko. Administrazioak bere gain hartu duenean, ordea, erlajatzea gertatu da, eta baita euskararekiko transmisioan ere. Oraingo guraso asko ikastoletako ikasle ohiak dira; badakite

euskaraz, baina gaztelaniara jotzeko ohitura dute. Umeek balore eta ohiturak ikasteko zerbait behar badute, hori da koherentzia; balore hezitzailea da, eta baita hizkuntzan ere. Ez du balio haurrari esatea euskaraz egiteko, eta norberak ez egitea. Bestalde, atentzioa ematen dit zenbat euskaldundu den gizartea, baina ez esparru informalean. Ez dakigu txis-

te bat euskaraz egiten. Ondo pasatzeko gaztelaniara jotzen dugu. Eredu eskasa da umeentzat.

Ez dugu koherentziarik, eta eredu gehienak etxetik datoz: etxean euskaraz egiten bada, umeak primeran egiten du eskolan; etxean ondo eserita eta familian jaten duenak, jangelan eta eskolan ere egiten du...



Zailtasunak etzeko erabilerak gora egin dezan

Duela 20 urte muturragokoa zen egoera. Gehiago ziren etxe euskaldunak (euskaraz bizi zirenak), euskaraz ondo zekiten eta erabiltzen zuten kideez osatuak, eta gehiago ziren erdaldunak ere (kide batzuek edo denek euskaraz ez zekitenez, gaztelaniaz soilik ari zirenak).

20 urte beranduago konplexuagoa da egoera. Gutxiago dira etxe euskaldunak (euskaraz soilik ari direnak), eta gehitzen ari dira etxe elebidunak

(nolabait esatearren), batzuetan euskaraz eta besteetan gaztelaniaz ari direnak. Etxe erdaldunek, berriz, ez dute kopuruan behera egin.

Zerk agintzen du etzeko erabileran? Familiakideen ezagutza mailak, noski, zenbat eta maila hobea izan, orduan eta errazago eta erosoago arituko gara, eta, alderantziz; baina, ezagutza mailaz gain, euskaraz hitz egiteko ohiturak edo ohitura ezak ere berebiziko garrantzia du.

Soziolinguistikari aditu direnek

(%)	1991	1996	2001	2006	2011
Andoain	26	26	27	21	22
Astigarraga	42	44	37	32	31
Hernani	27	28	29	28	26
Lasarte-Oria	17	16	15	13	13
Urnieta	35	35	31	27	26
Usurbil	52	56	54	44	42

Etxeko erabilerak Buruntzaldean azken 20 urteotan.

diotenez, etzeko hizkuntza bat ala beste izatea, bikotekideen edo etzeko helduen arteko erabilerak baldintzatzen du. Kide helduon arteko hizkuntzak markatzen du etxean, ohituraz,

erabiliko den hizkuntza. Eta etzeko erabilerak markatuko du, era berean, kide horiek, etxetik kanpo, hizkuntzarekiko izango duten jarrera eta portaera.

EUSKARA HANKAZ GORA



EUSKARA BURUZ GORA



ETXEAK DU GILTZA!



Bigarrena, dantza festa handiagoa

Aurreko ikasturtean osatu zen Dantza Garaikideko kideak Udarregi Ikastolan dabiltza asteotan, jo eta su, azken ukituekin, larunbat honetan, apirilak 12, Usurbilgo II. Dantza Egunaren baitan jendarteratuko duten ikuskizuna borobila izan da, taularatuko dutena fintzen.

Sustrai bereko adarrak estreinatzeko unea gerturazten ari den heinean, urduritasuna nabari da taldean. Entsegu saioetako batean muturra sartu eta tartertxo bat lapurtu diegu Dantza Garaikideko kideei.



1-Dantza Taldean zer parte hartze duzu?
2-Zer moduz bizi izan zenuen iazko Dantza Eguna?
3-Aurrerapen txiki bat. Zer ikusi ahalko dugu larunbatean?



Elixabete Eizagirre

1- Dantzan txikitatik ibili izan naiz. 2003-2004 ikasturtetik begirale gisa, betidanik talde txikienekin. Geroz eta talde helduagoetat arduratu izan naiz. Une honetan, Dantza Garaikideko partaide, Muxikoen taldeko begirale eta idazkari lanetan nabil.

2- Iaz antolaketa lanak oso azkar bideratu genituen. Eguna definitu genuenerako oso denbora gutxi gertatzen zen. Presaka antolatu arren, uste baino dezente hobeto atera zen.

3- Jende ezagun asko topatuko dugu. Ez da ohikoa hainbeste jende oholta gainean ikusteko aukera. Arratsaldeko ekitaldian oso dantza estilo desberdinak izango ditugu, 130 dantzariak parte hartuko dute Bizitasun puntu bat emango dio plazari. Gaueko ekitaldian ere, 60 bat dantzari eta 20 bat musikari izango ditugu ikuskizunean, denak usurbildarrak eta horrek guretzako balore handia du. Iaz baino eguraldi hobea egiten duen.



Zuriñe Lasarte

1- LH2tik nabil dantza taldean. Gero izan genuen denboraldi bat utzi genuela DBH aldean. Baina gero taldean hasi ginen berriz, haurrei irakasten. Orain gazteen taldean nago.

2- Goizean eguraldi txarra dela eta, ez zen jende asko animatu. Gero arratsaldean dantza talde desberdinak zeudenez, euskal dantzetat aparte, jende nahikoa bildu zen. Gustura egon ginen. Haurrek ere gustura pasa zuten. Gauarako, ikuskizunarekin urdurituta ginen, ia nola aterako zen. Baina oso ondo joan zen. Oso gustura egon ginen. Entseguetan baino askoz hobeto egin genuen.

3- Berrikuntzak daude aurtengoan. Denetarik egongo da, ikusiko da. Talde ezberdin gehiago daude, iazko edizioarekin alderatuta. Gazteenak DBHkoak dira eta helduagoak ere izango dira.

Herriko dantza taldeak herriarentzat egiten duen ikuskizun bat da eta nik uste ondo pasako dutela.



Amaia Olasagasti

1- Iaz hasi nintzen, Dantza Garaikideko helduen taldean nago.

2- Arratsaldeko dantza emanaldiek jende asko erakarri zuten, talde desberdinak izan baitziren. Jende desberdina elkartu zen. Polita izan zen. Gaueko ikuskizunari begira, guretzako bultzada handia izan zen, hainbeste lan egin ostean, emanaldia polita atera zelako. Eta gainera, oso ondo pasa genuen ikuskizunean, asko gozatu genuen.

3- Bai musika aldetik eta baita jende aldetik ere, abaniko zabala izango da. Iaz baino dantzari gehiago eta talde ezberdinak egongo dira, adin tarte aldetik ere, zabalagoa izango da. Berez istorio bat kontatu nahi da. Ikuskizun polita izango da, herriko jende asko bilduko baita.

Iaz zeinek asmatzen duen zer azaldu nahi den. Larunbat gaueko 22:00etan frontoian, izugarriko ikuskizuna egongo da. Animatu, etorri eta gozatu.



Aroa Alkorta

1- Txikitik dantzan ibiltzen nintzen, irakasle moduan pare bat urte aritu nintzen. Beti gustukoa izan dut dantza. Dantza Garaikideko emanaldia ikusi nuen iaz. Askok gustatu zitzaidan eta animatu nintzen.

2- Arratsaldeko dantza saioak ikusi nituen. Break dance eta beste hainbat estilotako saioak. Euskal Dantzak gehiago gustatu zitzaizkidan. Zerbait desberdina ikusi nuen, polita. Desberdina izan zen. Beti Euskal Dantzak modu batera ikustera ohituak gaude. Zerbait desberdinagoa ikusi nuen. Gaueko ikuskizuna ere asko gustatu zitzaidan.

3- Berrikuntzen artean, musika zuzenean izango da. Horrek ere emango dio bere xarma ikuskizunari. Polita izango da. Une lasai eta potentzagoak izango dira. Momentu desberdinak izango ditu saioak. Istorio bat da kontatu nahi dugu. Iaz gustukoak izango dituen herritarrek. Animatu eta etorri.

Dantza Egun anitza eta jendetsua



Iaz omenaldia egin zuten frontoian. Aurten ere, ekitaldi ikusgarri ugari antolatu dituzte.

Estilo ezberdinak lantzen diharduten herriko taldeak bilduko ditu, larunbatean ospatuko den II. Dantza Egunak. Jaialdi anitza izango da beraz. Antolatzaileek emandako bi datu; arratsalde partean frontoian izango den emanaldian, guztira 130 bat lagunek parte hartuko dute. Gauerako prestatzen ari diren ikuskizunean, beste 80 usurbildarrek.

Hitzordu hauei, batukada feminista taldekoek egingo duten kalejira, egunean zehar Tximeleta taldekoek Oiardo Kiroldegian ospatuko dituzten topaketak edota afalaurretik Kaxkoa girotuko duen dantza-kantu jira erantsi behar. Anitza eta jendetsua beraz, apirilaren 12 honetan Usurbilen ospatuko den II. Dantza Eguna. Erritmo bizian joango zaigu, datorren larunbata. Egitarauari erreparatu besterik ez dago.

APIRILAK 12 LARUNBATA

Eguerdian, batukada kaleetan zehar.

17:30 Usurbilgo Talde desberdinen dantza erakustaldia frontoian. Par-tehartzaleak:

- Tximeleta Soinketa Erritmikoko Taldea.

- Gaztetxeko Dantzariak.

- Warda irakaslearen taldea.

- Zumba Taldea.

- Usurbilgo Dantza Taldea.

19:00 Dantza-kantu jira, frontoitik abiatuta.

22:00 "Sustrai bereko adarrak" ikuskizuna frontoian. The Hastelen's Taldea, Zumarte abesbatza, Ixabel Agirresarobe eta Usurbilgo Dantza Taldeak elkarlanean sortutako ikuskizuna. 50 dantzaritik gora taula gainean ikusteko aukera.

Antolatzailea: Dantza Taldea.

SOINKETA IKUSKIZUNA

Tximeleta soinketa erritmikoko taldeen topaketa, Oiardo kiroldegian

10:00-11:00 Benjaminak: pelota eta uztai.

12:20-13:20 Alebin eta infantilak: txapelketa. Mazoak-uztaia, xingola-pelota, uztai bakarka.

13:20-13:30 Sari banaketa.

16:20-17:30 Benjaminak: pelota eta uztai.



Tximeletakoak ere batu dira Dantza Eguneko ospakizunetara.

400 lagun batu ondoren, Gure Esku Dagoren erronka: 500 atxikimendu

Gure Esku Dago bilguneak ekainaren 8ko giza-katerako 400 usurbildar biltzea lortu du. Igandean saldu zuten, 400. metroa. 500 atxikimendu jasotzeko erronka dute orain. Euskaldunon

erabakitze eskubidearen aldeko giza-katerako izen emateak zabalik jarraitzen du. Informazio postua jartzen jarraituko du Gure Esku Dago lan taldeak.

Bestalde, "Ni/gu ere han izango naiz/gara" esaldia esanez bideo motzak grabatzeko deialdia egiten diete herritarrei. Grabazioak, helbide honetara bidali: usurbilgureeskudago@gmail.com

Udaberri lauterdiko pilota txapelketa

